

TOLARE BASERRIA
A MAILA
ALMORTZA 6

Egile eta data ezezagunak
Deskribapena

XVIII. mendeko dolare motako baserría. Kokapen desegokian dago, bertako hiri garapenarekiko sestra baxuagoan. Era berean, narriadura egoera nabarmenean dago: estalkiaren zati handi bat, barne egitura eta ezker aldeko alboko fatxadaren zati bat eraitsita daude. Oinplano angeluzuzena eta bi isurkiko estalkia du, eta behe oinaz, lehen oinaz eta estalkipeko oinaz osatzen da. Fatxada nagusia hego-ekialdera orientatuta dago eta, jatorrian, Gudamendi menditik zetorren erreka baten ondoan zegoen. Fatxada xumeak ditu, baina inguruko horma lodiak. Baoak eta horien harlanduzko barlasaiak, lotura erregularreko karelak, eta zurezko pilare eta habe handiak nabarmentzen dira.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean monumentu kategoriaz inskribatu izanaren ondoriozkoa, 1998ko urriaren 22ko Aginduaren bidez (216. EHAA, 1998-11-12koa).
- * Eragindako ingurunea: adierazitako aginduan ezarritakoa.